

MILA MOTIKO TA NESKATILA

Donostiko karriketan
Mila motiko ta neskatala... irria ezpanetan
Euskal aberria, amets zaharra
Mila motiko ta neskatala... prestatzen ari dira.

Euskadi!
Euska... Euskadi!
Euska... Euska... Euskadi!
Bizkaia, Araba, Lapurdi, Base Nafarroa
Nafarroa, Gipuzkoa ta Ziberua...
Bai bai herriari, askatasunari
Mila motiko ta neskatala... borrokan ari
Batak ülünpian, bestiak argian
Mila motiko ta neskatala... girade bidian.

Hitzak et' Ahaidia: Niko Etxart

MUGA GAINETIK

Barda izan nizala bestala Iruanean
Ezpenakin espanyola euskaraz mintzatü nizala
Bai ta Euskaldünen artean
Eder da algar kunprenitza.

Müga gainetik Euskal Herrian
Müga best'aldetik Euskal Herrian
Nun da ordin Frantzia?
Nun da España ???
Mügatik bi aldetan beit' Euskal Herria.

Barda izan nizala bestala Baionan
Mikel' ek etzakian Frantzes ordin Euskaraz mintzatü da
Bai ta Euskaldünen artean
Eder da algar kunprenitza.

Hitzak et' Ahaidia: Niko Etxart

BORTIAN MENDI GAINETIK

Bortian mendi gainetik Ahüzki beita paüsagia
Mündin ezpeita segürki holako lekü ederrik
Basa belarraiki kabaleki
Girade nahasten
Ber hur sanua
Beitügü edaten.

Bortin üdako ekia berotzen beitü jentia
Behare hur freskua beitü emaiten ütürria
Plazerik goxuen
Urte orotan
Heben izatia
Bortio eder huntan.

Ahüzkiko besta handia Xiberun dügüla prestatzen
Jauziak, lasterka, barraka eta biazka kantatzen
Izanike ttipi handi
Bortüko jokietan
Nur dateke bürüzagi
Adixkideen artean.

Lohitxün-en ostatian han beita besta finitzen
Burrat baten edatian kobla zunbaiten elkitzten
Eta salduak arrapostü
Errepika eder bateki
Ahüzkin nurk ezteki
"BORTIAN AHUZKI"...

Hitzak et' Ahaidia: Niko Etxart

MUNDU BERRI BATENTAKO

Denbo ederra denian
Oihan zoko mendi kaskoetan
Gizon bat lo itzialan
Begiak serratürrik ametsetan
Gizon honek zer zin bürrian?
Nihurk ez nihurk etzakian!

Irriño bat espanyetan
Lo! lo! kurunka goxo goxuan.

Hiriko jentia aldiz zainetan
Bizi direlako beti lasterkan
Goizian et' arratsetan
Zer "penitentzia" Metro Autobus-etan
Hameka hilabetez ari dira lanian
Ta geienak bizi H.L.M.-etan
Bizizaille sobera herri handietan
Her! her! pentsatzen dü't memento huntan.

Mündü berri batentako
Jokatzen dü't nik oraino
Arrima gitin lagüntzeko
Gaiza hanitz kanbiatzeko
Bortia da sano sano
Bada lekü denentako
Egon gitin prest lagünak oro
Herrin lana... Ta herria guretako.

Hitzak et' Ahaidia: Niko Etxart

PRESONDEGIETAN TENPEST' AIDIA

Arüetan denbo ederra zelian ekia
Presondegietan aldiz tenpest' aidia
Presondegietan aldiz tenpest' aidia
Arüetan denbo ederra zelian ekia
Han da bizial!

Txoriak mendietan ta itsaso hegian
Gizon bat presondegian nigarra begian
Txoriak mendietan itsaso hegian
eta bortietan!

Ene ametsa ejerrena
Lau müri horier ezkapatzera
Ene ametsa ederrena
Txori bat bezala hegalatzera.

Orai badü hamar urte serratürrik nizala
Bena dü't bürrian beti ber ametsa
Eta dü hamar urte serratürrik nizala
Serratürrik nizala!

Eniz uhüñ handia ex kriminela
Bena ikusi beitü egia mintzatü nizala
Eta jendarmak jin dira ene txerkatzera!
en' arretatzera!
ene serratzera!

Hitzak et' Ahaidia: Niko Etxart

EPERRA

Eperrak baditüzü bere bi hegalak
Bai eta bürün gainin kokarda ejer bat
Zük ere balinbazünü gaztetarsün ejer bat
Neskatalen gogatzeko bilo holti pollit bat.

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe
Gaiaz ebiltia ez üken herabe
Egünaz ebiltia desohore leike
Txoriak ere oro haier soz dirade.

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti
Eial' atzamanen nianez lili ejer hori
Azkenian atzaman dü't oil' bena tristeki
Lümarik ejerrena beitzäo erori.

Mündian ez da nihur penarik gabe bizi
Nik ere badit aski hoitan segurki
Nik desiratzen nizün ezkuntzia zurekin
Bena ene aitak ez'tü entzün nahi hori.

Zure aitak zer lüke eni erraitako
Ala enitzaio aski haren ofizioko
Ala zü soberaxe zitzaio enetako
Printzerik ez ahal da orai zuenganako.

Herrikoa

NAHASTEKA

Hitz, hitaz, hitzez gira mintzo
Hots! hortaz, hortzez uxukitzeko
Gaitz, gaixki gaizer bürüzagitzeko
Hitz horiek, hots! gaitz dira entelegatzeko!
Hitz horiek, hots! gaitz dira ondo ulertzeko

Ikas, ikastolak, untsa, ongi, ondo, ejerki, polliki dezan
Irakas gure haurreri Euskara
Ikas, ikastaldiez, dirade biharko indar berri bati lotzeko
Zü zira üskaldün gu gara Euskadi berria.

Aita, Ama, Attata, Amama
Aitona, Amona, Aitaxi, Amatxi
Axaita, Axama, Aitañi, Amañi
Ikas, ikas, ikas dezagün hitz berri!
Ikas, ikas, ikas dezagün hitz berri!

Hanitz, asko, gehiago, gehio
Ützül, itzul, hitz horiek dira oro
Atzoko, egünko, gaürko, biharko
Üskaldün, Euskaldun edo Eusko...
Üskaldün, Euskaldun edo Eusko...

Atxiki, etxeki, bihar et' etzi
Ützi, ez ützi, bena behar ikasi
Dakinak, erabil, hortan da ageri
Euskaldunak Euskara maite dila azkarki!
Euskaldunak Euskara maite dila azkarki!

Hitzak et' Ahaidia: Niko Etxart

IRURIKO ETXAHUNEN OMENALDIA ATHARRATZEN.

Boztariozko egüna jin da guretako
Besta handi hori beita Etxahun zuretako
Haren gatik heben gira zuri kantatzeko
Errepika single bat algarrekin emaiteko.

Altxatzen düzü Xiberua
Oil' biva zü Etxahun
Zure errepikak dira
Euskadiko jentien gogun!

Elestan bezain sari ikasi dü't kantan
Botza süstengü eta kanto üskaldünetan
Ene herri maitia beitzen bai hürrünian
Parisen bizi nintzen, triste bihotzian.

Etxahun zure kantoriak gogoz dü'tü ikasi
Esker handi bat etxekoer bai ta ere zuri
Holaz gazte gaztetik nitan dü ezari
Euskararentzat amodio, bai ta Herriari.

Egün uhurutzen dügü omenaldi eder huntan
Etxahunen mereximentiak üskararen izenian
Berak egin tin lanak kültüraren mailean
Goratik altxa ditzagün, errepika huntan.

Hitzak et' Ahaidia: Niko Etxart

GURE NAHIA

Xiberuko eritarsüna gatik
Ait'et' Ama partitü zien etxetik
Ützik etxekoak
Ützik adixkidiak
Bihotza tinkatürrik...

Hola niz egün batez agitü
Parise herri handi hortan kexü
Ez zützaz Ama!
Ez zützaz Aita!
Parizez niz mintzatü...

Madarikatzen zaitüt
Parise ta zure zentralismoari züt!
Nik badit herri bat

Bizi nahi den bat
Lagüntüko dü't...

G11-10

Üzten zütüt, ützen zütüt Parise
Segür, segür nigarrrik gabe
Bihotz' alagera
Lan egitera
Herriaren alde...

Lana izan dadin bai izan dadin
Herriaren zerbütün
Ez eta langileen kuntra
Herriaren kuntra
Nausien eskü pin...

Xiberua sendotüko da
Hola beita gure nahia
Ta ütüz arrotz herriak
Ait'et' Ama maitiak
Zientako da!
Herri berria.

Hitzak et' Ahaidia: Niko Etxart.

ESKER BERDENAK, IMAIA TA GORKARR
LAGUNTZA BEREZIARENTAKO BAI TA EN
RI ETA R. LARRANDABURU-ARI "EPERRA
TORIARENTAKO ESKERRAK, J. AXIGAR "KARTE"
JAUNARI "EPERRA" KANTUAR
KEN BI BERSETENTAKO.

HIZTEGIA

Arüetan - Karriketan - Kaletan
Zelian - Zeruan
Ekia - Iguzkia
Bortü - Bortia - Mendi - Mendia
Mürü - Horma
Serratürrik - Itsirik
Uhun - Lapurra
Heben - Hemen
Izanike - Izan daiteke
Behare - Zorionez
Burrat bat - Trago bat
Boztariozko - Bozkariozko
Elestan - Hizketan
Barda - Atzo
Ordin - Orduan
Entelegatzeko - Kunprenitzeko - Ulertzeko
Ülünpian - Ilunpean
Agitü - Gertatu
Gaiza - Gauza

ALDE A
PRESONDEGIETAN TENPEST' AIDIA
(Niko Etxart)
MILA MOTIKO TA NESKATILA
(Niko Etxart)
NAHASTEKA (Niko Etxart)
EPERRA
(Herrikua - Moldatze - Niko Etxart)

ALDE B
IRURIKO ETXAHUNEN OMENALDIA
(Niko Etxart)
BORTIAN MENDI GAINETIK
(Niko Etxart)
MUNDU BERRI BATENTAKO
(Niko Etxart)
MUGA GAINETIK
(Niko Etxart)
GURE NAHIA (Niko Etxart)

Txirula: J. Etxegoien (Alzürükü, Iruri)
Dultzainak, trombola, bonbardino, eta trompeta:
Txapi eta Joseba. "Indarra" taldekoak (Gasteiz)
Moldakuntzak: Rodrigo
Itzulpena: Erdaraz: J. Madariaga
Eragile: Gorka Knörr
DISKA HAU MOVIEPLAY ETA KARDANTXA-KO
PRODUKZTO BAT DA.
(P) 1979, MOVIEPLAY, Made in Spain

Edita: MOVIEPLAY, S.A. Fernando el Santo, 17. Mad
Made in Spain - Depósito Legal: M - 28613 - 1979
Imprime: MOVIEGRAF - Tierra de Barros, 4
Polígono Industrial de Coslada (Madrid)